




AXULAR BHI

# EKINAREN ASTEA 2023

maiatzak 22-28 de mayo



EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN  
ETA INGURUMEN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD  
Y MEDIO AMBIENTE

Iraunkortasunerako  
Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua  
*Servicio de Educación Ambiental  
para la Sostenibilidad*



# ZER DA EKINAREN ASTEA?

IEKINAREN ASTEA maiatzaren 22a, Anitzasun Biologikoaren Nazioarteko Eguna, jausten den astean ospatzen da. Egun horretan bertan, Aztertu programak EKINAREN EGUNA ospatzen du, ingurumenaren aldeko jarduera bat garatuz talde konkreto batekin.

Ekimena 2012an sortu zen eta harrezkero urtez urte ospatuz joan da. Komunitate osoa ingurumenaren aldeko ekintzen garapenean aktiboki implikatzeko asmoz sortu zen. Azken finean eta izenak adierazten duen bezala, "ekinean jartzea" da asmoa, Aztertu Programaren ohiko analisi eta laginketetatik haratago.

Era guztietako taldeek parte hartu ahal izateko (ikastetxeak, elkartea, udal-taldeak, familiak, etab.), ASTEBETEKO EPEA ematen da, eta, epe horretan, jarduerak egin beharko dira. Kasu honetan, maiatzaren 22tik 28ra izan zen.

## ¿QUÉ ES EKINAREN ASTEA?

*EKINAREN ASTEA se celebra siempre la semana en la que cae el 22 de mayo, Día Internacional de la Diversidad Biológica. Ese mismo día, el Programa Aztertu celebra el EKINAREN EGUNA, desarrollando una actividad en favor del medio ambiente con un grupo concreto.*

*La iniciativa nace en 2012 y desde entonces se celebra año tras año. Se creó con la pretensión de involucrar a toda la comunidad de manera activa en el desarrollo de acciones en favor del medio ambiente. En definitiva, y como el nombre indica "ponernos en acción", más allá de los análisis y los muestreos habituales del Programa Aztertu.*

*Para que todo tipo de grupos puedan participar (centros escolares, asociaciones, colectivos municipales, familias, etc) se da UNA SEMANA de plazo, durante la cual se deberán llevar a cabo las actividades. En este caso fue del 22 al 28 de mayo.*



# **PARTE-HARTZAILEEN AURKIBIDEA**

## **ÍNDICE DE PARTICIPANTES**

**AXULAR BHI**

**DONIBANE CENTRO OCUPACIONAL**

**EGIBIDE BHIP**

**EL REGATO IKASTETXEA**

**FABIAN LEGORBURU HLHI**

**IPARRAGIRRE IKASTOLA**

**LAURO IKASTOLA**

**MUSKIZKO IKASTOLA**

**SERANTES HLHI**

**TURTZIOZ HLHI**

**ZABALEKO HLHI**



*egin Klik ekintza ikusteko  
haz Clic para ver la actividad*



# AXULAR BHI

SANTURTZI  
BIZKAIA

## HONDAKIN ESPEZIFIKOEN KUDEAKETA

DBH 4. mailako ikasle batzuek urtean zehar ikastetxearen biltzen ditugun material eta hondakinak eraman dituzte aste honetan herriko GARBIGUNERA.

ARGAZKIAK



FOTOS

## GESTIÓN DE RESIDUOS ESPECÍFICOS

*Parte del alumnado de 4º de la ESO ha llevado esta semana al GARBIGUNE de la localidad algunos de los materiales y residuos que recogemos en el centro a lo largo del año.*



CENTRO  
OCUPACIONAL  
**DONIBANE**  
ASOCIACIÓN GAUDE


LEIOA  
BIZKAIA

## SARE BERDEAK EHUNTZEN

Donibane Zentro Okupazionalak Sare Berdeak sarean parte hartzen du, "Lorategiak eta terrazak bizirik" proiektuarekin.

Ekimen honek lorategi, balkoi edo terraza batetik hiri-biodibertsitatea nola babes dezakegun aztertzen du. Ingurumenean eta, batez ere, inguruko flora eta faunan eragin handia duten neurri txikiak dira.

Mercedarias ikastetxea gurekin harremanetan jarri zen proiektu komun bat egiteko, bi aldeen implikazioarekin ingurumenaren mesedean.



## TEJIENDO REDES VERDES

*El Centro ocupacional Donibane, participa en la red Sare Berdeak con el proyecto "Jardines y terrazas con vida".*

*Ésta iniciativa, trata sobre cómo podemos proteger la biodiversidad urbana desde un jardín, un balcón o una terraza. Pequeñas medidas con un gran impacto en el medio ambiente y sobre todo para la flora y fauna que nos rodea, en la comunidad.*

*El colegio Mercedarias, se puso en contacto con nosotr@s, con el fin de realizar un proyecto en común, con la implicación de ambas partes en beneficio del medio ambiente.*



# EGIBIDE JESÚS OBRERO BHIP

VITORIA-GASTEIZ  
ARABA

## MODA SOLIDARIOA EGIBIDEN

Elizbarrutiko Caritasekin sinatutako lankidetza-hitzarmenari esker, aste honetan proiektu bat garatu da. Proiektu horretan, batxilergoko 1. mailako 50 ikasleko talde batek ehungintzak ingurumenean eta gizartean duen eragina landu du, eta esperientzia handiz ezagutu ditu Kooperaren tripak.

Koopera irabazi-asmorik gabeko erakunde da, hondakinak kudeatzen ditu eta ekonomia zirkularra sustatzen du gaikako bilketaren, berrerabilpenaren eta ingurumen-sentsibilizazioaren bidez. Helburua ingurumena babesten laguntzea eta gizartean praktika iraunkorrak sustatzea da.

INFORME

INFORME

ARGAZKIAK

FOTOS

## MODA SOLIDARIA EN EGIBIDE

Gracias al convenio de colaboración con Cáritas Diocesana, durante esta semana se ha desarrollado un proyecto en el que un grupo de 50 estudiantes de 1º de bachillerato ha trabajado el impacto ambiental y social que tiene la industria textil y ha conocido de manera experiencial las tripas de Koopera.

Koopera es una organización sin ánimo de lucro que se dedica a la gestión de residuos y promueve la economía circular a través de la recogida selectiva, la reutilización y la sensibilización ambiental. Su objetivo es contribuir a la protección del medio ambiente y fomentar prácticas sostenibles en la sociedad.



# COLEGIO **EL REGATO** IKASTETXEA

BARAKALDO  
BIZKAIA

## URTEGIAREN GARBIKETA

El Regato ikastetxeko 5 urteko ikasleek irteera bat egin dute urtegiaren ingurua garbitzeko. Eskularruak, pintzak eta poltsak jantzita, aurkitzen zituzten hondakinak sailkatzen joan dira, ondoren eskolara eramateko, horiei buruz hitz egiteko eta dagozkien edukiontzieta uzteko.

Eurekako tailerretik egin dute, non birziklapena eta hondakin mota ezberdinak lantzen ari ziren. Asmoa da proiektu hau ziklo honetan ezarrita geratzea eta urtero gauzatzea, ikasleak modu aktiboan kontzientziatuz hondakinak modu jasangarrian kudeatzearren garrantziaz eta gure planeta garbi mantentzearen garrantziaz.

ARGAZKIAK



FOTOS

## LIMPIEZA DEL EMBALSE

*El alumnado de 5 años del colegio El Regato ha realizado una salida por su entorno más cercano para hacer una limpieza de los alrededores del pantano. Ataviados con guantes, pinzas y bolsas han ido clasificando los residuos que iban encontrando, para llevarlos a clase después, hablar sobre ellos y depositarlos en sus contenedores correspondientes.*

*Lo han llevado a cabo desde el taller de Eureka, en el cual estaban trabajando el Reciclaje y los diferentes tipos de residuos.*

*La idea es que este proyecto quede implantado y se lleve a cabo todos los años, contribuyendo así de una forma activa a la concienciación del alumnado de la importancia de gestionar los residuos de una forma sostenible y de mantener limpio nuestro planeta.*



# FABIAN LEGORBURU HLHI

LAUDIO  
ARABA

## KOMIKI LEHIAKETA

Energiaren erabileraaren inguruaren ikastetxean hausnarketa prozesu bat zabaldu behar zela pentsatu izan genuen eko-ordezkariok.

Atera ziren idea desberdinaren artean, gehien gustatu zitzaiguna komiki-lehiaketa bat antolatzea izan zen.

INFORMEA



INFORME

BIDEOA



VÍDEO

## CONCURSO DE COMICS

*Las y los eco-representantes pensamos que había que abrir un proceso de reflexión en el centro sobre el uso de la energía.*

*Entre las diferentes ideas que salieron, lo que más nos gustó fue organizar un concurso de cómics.*




# IPARRAGIRRE IKASTOLA

BILBO  
BIZKAIA

## KONTSUMO ARDURATSUA

Gertuko produktuen komtsumoa, auzoko saltokietan erostea eta elikadura osasuntsua sustatzen duen ekimena aurrera eraman dute ikasleek.

BIDEOA



VÍDEO

## CONSUMO RESPONSABLE

*Puesta en marcha de una uniciativa que fomenta el consumo de productos de proximidad, la compra en los comercios del barrio y una alimentación saludable.*



# LAURO IKASTOLA

LOIU  
BIZKAIA

## HONDAKINEN BILKETA

2023ko maiatzaren 26an, Ekinaren Astearekin bat eginez, Ikastolan hondakinen bilketa eta garbiketa egin dugu HHko, LHko eta DBHko ikasle batzuen artean.

Ekimen hau 2021-2022 ikasturteko IRAES 21 taldeko ikasleek sortu zuten, Ikastolan larrialdi klimatikoari aurre egiteko proposamen bezala.

Ekimen honek ingurumena zaintzeko pauso bat aurrera emateko aukera ematen digu hainbat helburu landuz.

ARGAZKIAK



FOTOS

## RECOGIDA DE RESIDUOS

*El 26 de mayo de 2023, coincidiendo con Ekinaren Astea, en la Ikastola hemos realizado la recogida y limpieza de residuos entre algunos alumnos de Infantil, Primaria y ESO.*

*Esta iniciativa fue creada por alumnado del grupo IRAES 21 durante el curso 2021-2022, como propuesta para hacer frente a la emergencia climática en la Ikastola.*


*Esta iniciativa nos permite dar un paso adelante en el cuidado del medio ambiente trabajando diferentes objetivos.*



# MUSKIZKO IKASTOLA

MUSKIZ

BIZKAIA



## IKASTOLAKO ZUHAITZEN PLANOA

Proiektu honen bitartez ikastetxe osoan dauden 74 zuhaitzak identifikatu egin ditugu eta horiek guztiak plano digital batean irudikatu ditugu komunitateari partekatzeko.

Gainera, planoa baliatuz mapa bat sortu eta ginkana bat prestatu dugu ikastetxeko ikasle guztientzat.

INFORMEA



INFORME

## PLANO DE LOS ÁRBOLES DE LA IKASTOLA

*Con este proyecto hemos identificado los 74 árboles que hay en todo el centro y los hemos representado en un plano digital para compartirlos con la comunidad.*

*Además, con el plano hemos creado un mapa y preparado una ginkana para todo el alumnado del centro.*



# SERANTES HLHI

## SANTURTZI BIZKAIA

## HONDAKINEN KUDEAKETA ESKOLAN

2. mailako ikasleek egindako ekintza bidaltzen dizuegu, haientzako oso gustuko ekintza izan dena. Interes handiz lan egin dute eta ingurumena zaintzeko moduaz dakiten guztia erakutsi dute.


Gainera, hondakinen kudeaketa hobetzeko irtenbide asko eman dituzte.



## LA GESTIÓN DE RESIDUOS EN EL CENTRO

*Os enviamos la actividad realizada por alumnado de 2º, que ha sido muy del agrado para todas y todos. Han trabajado con mucho interés y han demostrado todo lo que saben sobre cómo cuidar el medio ambiente.*

*Además, han aportado muchas soluciones para mejorar la gestión de los residuos.*



# TURTZIOZ HLHI

# TURTZIOZ BIZKAIA

## AGÜERA IBAIAREN ZAINTZA

Turtziozko Eskolan, aurten ere eta hirugarren urtez, Ekinaren Astearekin bat egin dugu. Eskola atzean daukagun ibaiaren zaintzan aritu gara:

Zuhaitz eguna ospatu genuen martxoan, URA erakundearekin kontaktuan jarriz, eta ikasleak eta familiak 30 inguru zuhaixka landatu genituen. Ekinaren Asteko zereginen artean gure zuhaixka hauek zaintza izan da, ureztatzea gehien bat. Honetaz gain, uraren kalitatea neurtu dugu Ibaialde kitekin lagunduta eta bestetik familiekin eta herriko egoitzakoekin lagunduta ibaiaren garbiketa osatu dugu.

ZUHAITZ EGUNA    IBAIAREN GARBIKETA



## CUIDADO DEL RÍO AGÜERA

*En Turtzioz Eskola, una vez más y por tercer año, nos hemos sumado a Ekinaren Astea trabajando en el cuidado del río que tenemos detrás de la escuela:*


*En marzo celebramos el día del árbol, poniéndonos en contacto con la entidad URA, y los alumnos y familias plantamos una treintena de arbolitos. Entre las tareas de Ekinaren Astea destacan el cuidado de los citados árboles, principalmente en las tareas de riego. Además, hemos realizado la medición de la calidad del agua con la ayuda de los kits Ibaialde y la limpieza del río con ayuda de las familias y la residencia del pueblo.*



# ZABALEKO HLHI

AMURRIO

ARABA



## EURIAREN URA APROBETXATZEKO SISTEMA

6. mailako ikasleek euriaren ura aprobetxatzeko sistema martxan jarri dute.

Gure eskolako negutegiko ortua ureztatzeko iturriko uraren gastua murriztu behar genuela ondorioztatu genuen, izan ere, ur kantitate handia erabiltzen genuen landatutako barazkiak ureztatzeko.

Poz-pozik gaude lortutako emaitzarekin!

ARGAZKIAK



FOTOS

## SISTEMA DE APROVECHAMIENTO DEL AGUA DE LLUVIA

*El alumnado de 6º ha puesto en marcha un sistema para aprovechar el agua de la lluvia.*

*Llegamos a la conclusión de que teníamos que reducir el gasto de agua del grifo para regar la huerta del invernadero en nuestra escuela, ya que utilizábamos mucha cantidad de agua para regar las verduras cultivadas.*

*¡Estamos encantados con el resultado obtenido!*

# AZTERTU PROGRAMA

747 42 99 33 New!

 aztertu@euskadi.eus

 [www.euskadi.eus/aztertu](http://euskadi.eus/aztertu)



Iraunkortasunerako  
Ingorumen Hezkuntzako Zerbitzua  
*Servicio de Educación Ambiental  
para la Sostenibilidad*

